



berdindu!

EUSKO JAURLARITZA

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Gaur, urriak 21, **Trans Pertsonen Despatologizazioaren aldeko Nazioarteko Eguna** ospatzen dugu. Eta norbaitek galdetuko dio bere buruari zer esan nahi duen hitz horrek eta zergatik den hain garrantzitsua.

Duela gutxi arte, trans pertsonak "persona gaixotzat" hartzen ziren, eta, horregatik, txosten medikoek eta medikuntzak paper garrantzitsua hartzen zuten trans errealitateetan; izan ere, trans izatea osasun mentaleko patologiatzat hartzen zen, eta horrek min handia, sufrimendu handia eta diskriminazio handia sortzen zituen.

Zorionez, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) neurri esanguratsuak hartu zituen trans pertsonen despatologizazioari heltzeko eta genero-aniztasuna errespetatzeko. Horrela, 2019an, Gaixotasunen Nazioarteko Saillkapena (GNS-11) eguneratu zuen, "genero-inkongruentzia" buru-nahaste gisa kategoriatik kenduz eta sexu- eta ugalketa-osasuneko ataleko gai bezala hartuz.

Aldaketa berak trans pertsonetikiko errespetua eta begirunea azaltzen baditu ere, zoritxarrez, aurreko lotura medikoa amaitu gabe dago guztiz.

Berdinduk txalotu egiten du trans errealitatearen ikuskera berri hori, estigmatizazioa eta diskriminazioa murrizten laguntzen duelako, eta arreta medikoaren ikuspegi begirunetsuagoa eta bidezkoagoa sustatzen duelako, bai eta haren genero-identitatearen legezko aitortpena ere.

Trans pertsonen esperientziak giza esperientziaren aniztasunaren beste adierazpen bat dira. Berdinduk azpimarratzen eta errepikatzen du pertsona guztiek dutela beren genero-identitatearen arabera bizitzeko eskubidea.

Horregatik, Trans Pertsonen Despatologizazioaren aldeko Nazioarteko Egunean, Berdindu Zerbitzu Publikoak transfobiari aurre egiteko deia egin nahi du. Pertsona guztiok merezi dugu errespetua eta duintasuna, gure genero-identitatea alde batera utzita.

Trans pertsonen beren genero-identitatearekin bat datorren bizitza osoa garatu ahal izateko eskubidea bermatzeko beharra azpimarratzeko eguna da; hori guztia, kalitatezko arreta medikoa bermatuz eta tratu onetatik abiatuta hala nahi duten pertsonen, trantsizio-eredu bakar bat inposatu gabe.

Eta Giza Eskubideen ikuspegitik, uste dugu trans pertsonen despatologizazioan aurrera egiteak mundu bat sortzen laguntzen duela, non pertsona guztiek, beren genero-identitatea edozein dela ere, diskriminaziorik gabe eta aukera-berdintasunez bizi ahal izango duten. Despatologizazioa funtsezko urratsa da trans pertsonentzako berdintasunaren eta justiziaren aldeko borrokan.

(1)Genero inkongruentzia, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (GNS-11) pertsona batek bere burua identifikatzeko erabiltzen duen generoa eta jaiotzean eman zaion esleipenarekin bat ez datorrena.